



<b>Ekipoa</b>	<b>Panel fotovoltaikoa</b>
<b>Kodea</b>	D-4020
<b>Ingurumen-hobekuntza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Energia aurreztea.</li> <li>- Klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzea.</li> </ul>
<b>Deskribapena</b>	<p>Eguzki-energia fotovoltaikoa da diodo motako gailu erdieroaleen bidez energia elektrikoa lortzeko modu bat. Gailu horiek eguzki-erradiazioa jasotzen dutenean kitzikatu egiten dira, salto elektronikoak eragiten dituzte, eta potentzial-diferentzia txiki bat sortzen dute beren muturretan. Fotodiodo horietako batzuk seriean akoplatzen direnean, tentsio handiagoak lor daitezke oso konfigurazio bakunetan, eta nahikoak dira gailu elektriko txikiak elikatzeko.</p> <p>Eskala handiagoan, plaka fotovoltaikoek ematen duten korrante elektriko zuzena korrante aldizkatzaile bihurtu daitezke, eta sarean injektatu. Isolatutako inguruetan (horietan korrante elektriko gutxi behar izaten da eta sarerako sarbidea garestia da distantziarengatik), besteak beste, estazio meteorologikoetan edo komunikazioen errepikagailuetan, baserrietan, etxebizitza isolatuetan eta abarretan, plaka fotovoltaikoak erabiltzen dira ekonomikoki bideragarria den irtenbide gisa.</p> <p>Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren esparruan, plaka fotovoltaikoek bete beharreko gutxieneko errendimendu-ehunekoa % 20 baino handiagoa da.</p> <p>EAEn, hornitzaileen informazioaren arabera, 2003an, 678 eguzki-instalazio fotovoltaiko zeuden eta instalatutako puntako 1.285.000 W-koa zen.</p> <p>EAEn azken bi urteotan eraikitako eguzki-instalazio fotovoltaiko adierazgarriena da, agian, BECeko 5. eta 6. pabiloien estalkien zati batean jarrita dagoena. Gutxi gorabeherako azalera 1.000 m<sup>2</sup>-koa da, eta 628 eguzki-modulu ditu; guztira, instalatutako eguzki-potentzia 100.000 kWp ingurukoa da.</p> <p>Inbertsioa, guztira, 540.000 euro baino gehiagokoa izan da eta BEC Solar izeneko sozietateak egin zuen. Sozietate horretako kide dira BEC – Bilbao Exhibition Centre (% 45), EEE – Energiaren Euskal Erakundea (% 30) eta Millennium Energy (% 25).</p> <p>ICO-IDAE finantzaketa-lerrorako aurkeztu da proiektua, eta % 20ko dirulaguntza lortu du, itzuli beharrik gabe. Hemendik aurrera, instalazioaren produkzio elektrikoaren ondorioz, urtean 95.000 kg-tan murriztuko dira CO<sub>2</sub> emisioak.</p>
<b>Zein sektoretan aplikatu daitezkeen eta erabilerak</b>	Energia elektrikoaren hornidura, sare-instalazio isolatuen, autokontsumoko instalazioen eta sarerako konexioen bidez. Jarduera mota guztietan aplikatu liteke.